



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 3a

123. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/PES-00187. Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 10-22/PES-00206. Galdera, Larrialdietako zuzendaria, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteetarako ekintzak koordinatzeko izendaturikoa, egon zen lekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 10-22/PES-00207. Galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteei aurre egiteko laguntza logistikoko taldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-22/PES-00208. Galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteen aurka egiteko aireko baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 10-22/PES-00209. Galdera, baso-suteen aferan larrialdi-zerbitzuek dituzten ahuleziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 10-22/PES-00210. Galdera, larrialdiei begirako suhiltzaileen efektibo operatiboei eta errefortzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-22/PES-00213. Galdera, G30005 G3500 6013 467903 REACT. NASERTICi eginiko enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO FEDER 14-20 partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 10-22/PES-00214. Galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 34/22 Ebazpena, 2022ko urriaren 26koa, Nafarroako Arartekoak emana, urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdirako oinarriak onesten dituen, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko (13. or.).

—Deialdia, hautapoben bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikarien bi zerrenda osatzekoa: bata, Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako; eta bestea, aldi baterako administrazio-kontrataziorako. Gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda (20. or.).

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00187. Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2022ko ekainaren 8ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzun dadin egindako galderari dagokionez, ekainaren 29an eman zen erantzuna, eta parlamentari jaunak ekainaren 30ean errepikatu zuen, honako hau adieraziz:

Kontseilariak berak antzeko ekimenei (10-22/PES-00179, 10-22/PES-00180 o 10-22/PES-00181, besteak beste) emandako erantzunetan aitortu zuen proiektuek bete beharreko datek eta Departamentuak egindako exekuzio-aurreikuspenen datek ez dutela zertan bat etorri; beraz, egindako galderari berariaz erantzuteko eskatzen dut.

Hona hemen erantzuna:

Gaur egun, exekutatzeko denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzerako Departamentu honen exekuzio-aurreikuspenari dagokionez, ez dugu exekutatzeko denboraren aurreikuspenik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

10-22/PES-00206. Galdera, Larrialdietako zuzendaria, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteetarako ekintzak koordinatzeko izendaturikoa, egon zen lekuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Larrialdietako zuzendaria, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteetarako ekintzak koordinatzeko izendaturikoa, egon zen lekuari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak informazio-eskaera egin du (PES-00206), non honako informazio hau eskatzen baitzaio Nafarroako Gobernuari:

Fisikoki non egon zen larrialdietako zuzendaria, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteetarako ekintzak koordinatzeko izendaturikoa?

Aipatu eskaerari dagokionez, Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuak honako gogoeta hauek egin ditu:

Larrialdietako zuzendaria larrialdiaren ardura-dun nagusia da tokian bertan, baita horri lotuta

egin daitezkeen gainerako jarduketena ere, hala nola sua itzali, biktimak salbatu, ondasunak babestu, lehentasunak ezarri eta abarrena.

Ekainaren 15etik 29ra Nafarroan izandako baso-suteetan, Larrialdietako zuzendaria, eta suteen bilakaeraren ondorioz sortutako beharren arabera, honako toki hauetan egon zen: SOS Nafarroa Ekintza Koordinaziorako Zentroan (aurrerantzean CECOP), Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuko Krisi Gelan kokatua; Aginte Postu Aurreratuan, suteetatik hurbil, eta hura egotea beharrezkotzat jo zen Nafarroako tokietan.

Aurrekoarekin lotuta, 112-SOS Nafarroa Larrialdiak Kudeatzeko Zentroa arautzen duen martxoaren 6ko 18/2019 Foru Dekretuaren 2.2 artikulua xedatzen du CECOPa dela babes zibileko plan autonomikoaren jarduketak zuzentzeko organo gorena. Planaren zuzendaritzaren inguruan eratan da, larrialdi egoeretan aginte eta kontrol lanak bere gain hartzeko. Larrialdiak Kudeatzeko Zentroaren barruko Krisi Gelan kokatuta dago.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-22/PES-00207. Galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteei aurre egiteko laguntza logistikoko taldeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteei aurre egiteko laguntza logistikoko taldeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari José Javier Esparza jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00207), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

- Zein egunetan abiarazi zen Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteei aurre egiteko laguntza logistikoko taldea?
- Nor ziren lantalde horren kide?
- Fisikoki non egin zuten zuten bilera?

Laguntza Logistikoko Taldea 2022ko ekainaren 18an eratu zen, Nafarroako Babes Zibileko Lurralde Plana (PLATENA) aktibatzearekin bat, eta haren tamaina eta baliabideak larrialdiaren bilakaerari lotutako beharretara doitu ziren.

Taldearen oinarrizko eginkizunak dira gainerako jarduketa-taldeei laguntza teknikoa eta logistikoa ematea, epe labur-ertainean egon daitezkeen kalte-arriskuak baloratzea, iragarpenak egitea lan-eremuan eragina izan dezaketean gorabeheren inguruan, berariazko makineria eta garraio-bide masiboak jartzea, oinarrizko bizi-elementuak kontrolatzea eta aprobetxatzea, eta eremuan esku hartzen ari diren taldeendako lagungarri diren tresna, erreminta, aholkularitza eta bestelako oro.

Honako hauek osatu zuten taldea: SOS Nafarroa Ataleko burua eta Atal horretako Prestakuntza eta Gainbegiratze Bulegoko burua; Larrialdietako eta Komunikazio-sistemetak Plangintza eta Prestakuntzako Ataleko burua eta Atal horretako Segurtasun arloko goi-mailako teknikariak; laguntza emateko bildutako operadoreak; suhiltzaile-sarjentuak; Ingurumeneko teknikariak; Babes zibileko boluntarioen taldeak eta Gurutze Gorriko eta DYako boluntarioak.

Laguntza Logistikoko Taldea SOS Nafarroa Ekintza Koordinaziorako Zentroan (CECOP) zegoen, Larrialdiak Kudeatzeko Zentroaren Krisi Gelan kokatua.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-22/PES-00208. Galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteen aurka egiteko aireko baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteen aurka egiteko aireko baliabideei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari José Javier Esparza jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00208), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Ekainaren 15etik 29ra bitartean izandako baso-suteei aurre egiteko hegazkin eta helikopteroetako pilotuek zergatik joan behar izan zuten ura suteetatik urruneko tokietan hartzera, eta ez hurbilen zeuden urtegi edo putzuetan?

Hegazkin eta helikopteroetako pilotuek agiri kartografiko eguneratuak dituzte, eta bertan begiratzen dute ura kargatzeko eskuragarri dauden guneak.

Ura non kargatzeko erabakia aireontziko komandanteak hartzen du, eta hautatzeko orduan, ez da soilik aintzat hartzen putzuak gertu egotea; era berean, funtsezkoa da erabakiak hartzea baliabideen, iristeko bideen, haizearen norabidearen eta abiaduraren eta sua itzaltzeko ibilgailuen segidaren noranzko eta norabidearen inguruan.

2. Putzuak une oro eduki al dira garbi, bai eta zeharo kokatuta eta georreferentziatuta?

Putzuak geruza georreferentziatu batean kokatuta daude, eta gehienetan haien jabetza araubideak baldintzatzen ditu mantentze-lanak.

Foru Komunitateko Administrazioak, suteak prebenitzeko eskumenen barruan, hainbat putzu eraiki ditu, eta horien erabilera nagusia da ura kargatzeko berariazko puntuak edukitzea suteak itzaltze aldera.

Horietan, mantentze-lanak egiten dira Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, suteak itzaltzeari begira egoera egokian egon daitezten.

Mantentze-lanak askotarikoak izan daitezke: sasi-garbitzeak eta zuhaitzi-mozketak putzuaren inguruan aireko baliabideei sarbidea errazteko, iragazgaizteko materiala konpontzea, errakoreak aldatzea, eta abar.

3. Egia al da helikopteroetako pilotuek diotena, toki askotan alferrik bota zutela ura, lurrean ez zegoelako sua zeharo itzaltzeko brigadarik?

Ez dakigu zein egoeratan gerta zitekeen gertakari hori, baldin eta egia bada. Hala ere, suteak itzaltzeko estrategiak eska dezake ura bota behar izatea puntu jakin batzuetan, sugarren abiadura murriztu eta suebakiak prestatzea errazteko asmoz.

Era berean, eremu orografiko jakin batzuetan zaila da lurreko baliabideekin iristea, eta aukera bakarra da suak aurrera egitea atzeratzea edo mugatzea aireko baliabideak baliatuta.

4. Medikudun helikopteroa egokituta al zegoen bambia garraiatu eta ura jaurtitzeko?

Osasun-helikopteroa suteak itzaltzeko lanak egiteko moldatuta zegoen. Hala ere, aireontziak lurrean mugitzeko maniobretan, Miluzeko instalazioetan, ezbehar bat izan zuen eta horrek helibaldeko atzeraispiluaren euskarria hondatu zuen; hortaz, ezin izan zen erabili, baina ura botatzeko funtzioari dagokionez, soilik.

Hori horrela, gogoratu behar da ura botatzea jarduera osagarria dela EC-135 helikopteroarentzat, izan ere, suteei aurre egiteko xede nagusitzat baititu aireko baliabideak koordinatzea, behaketa egitea eta patruilatzea.

5. Egia al da ekainaren 18an, zeuden aurreikuspenak egonda, Nafarroa osoan sute-itzalketarako bi helikoptero besterik ez zegoela? Hala ez bazen, zenbat zeuden eskuragarri?

Baso-suteei aurre egiteko udako kanpaina hasten denean, udako kanpainen laguntzeko helikopteroa ere erabilgarri dago, 6 hilabetez, eta horrela guztira hiru helikoptero daude erabilgarri aldi horretan.

6. Egia al da Ministerioaren ATC hegazkina ekainaren 18an ez zegoela Nafarroan?

ATC hegazkina (lurrean kargatzeko hegazkina) Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak baso-suteei aurre egiteko kanpaina aktibo dagoen aldian Nafarroako Foru Komunitatearen esku jartzen duen baliabide bat da, baina ezin du modu eskusiboan erabili. Gobernu zentralak 2022ko uztailaren 1ean aktibatutako kanpaina hori.

7. Egia al da ekainaren 18an zenbait orduz ez zela 112 aretoan inolako agintari teknikorik egon erabakirik hartzeko? Zenbat orduz ez zen egon kasuko agintaria?

Suhiltzaileen guardiako arduradunak eguneko 24 orduetan bete zuen erabakiak hartzeko agintari teknikoaren postua. Bulegoa 112-SOS Nafarroa aretoaren ondoan du badu ere, kokapena aldatzen da egoera bakoitzaren beharren arabera.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apestequiá

10-22/PES-00209. Galdera, baso-suteen aferan larrialdi-zerbitzuek dituzten ahuleziei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, baso-suteen aferan larrialdi-zerbitzuek dituzten ahuleziei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari José Javier Esparza jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00209), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuaren ustez, zein dira baso-suteen aferan larrialdi-zerbitzuek dituzten ahuleziak?

Ekainean Nafarroan izandako zorigaitzoko eta aparteko suteen ondoren, eta baso-suteez bezainbatean Estatu osoan bizitako uda gogorra –mundu osoko beste herrialde batzuetan ere errepikatu da– ikusita, egiazta dezakegu jatorri multifaktorialeko une berri batean gaudela.

Teknikariek nabarmentzen dute landa inguru-nearen despopulazioak eta, batez ere, jada begien bistakoak diren klima-aldaketaren ondo-

riok joera-aldaketa argia adierazten digutela. Paradigma-aldaketa horrek behartzen gaitu suteen arloko larrialdien kudeaketa eta prebentzioa ekintza politikoaren lehentasunezko maila batean kokatzera. Ikuspegi integral batetik hausnartzera eraman behar gaitu, erantzuteko eta prebenitzeko gaitasuna hobetzera bideratua, ahaztu gabe behartuta gaudela gure baliabideak modu zeharkako eta eraginkorrean kudeatzera.

Baliteke gero eta sute handiagoei aurre egin behar izatea, eta horiek sarriago eta aldi berean gerta daitezke. Horri dagokionez, jabetu behar dugu gerta daitekeela etorkizunean suteak izatea eta horiek itzaltzeko ez egotea ez autonomia-erki-degorik, ez erakunderik behar beste langilerekin inguruabar horiei bakarka aurre egiteko.

Hain zuzen, horrelako kasuetan behar-beharrezkoa da autonomia-erkidegoen arteko lankidetzeta eta koordinazioa, eta Estatuarekin, eta, gure kasuan, beste herrialde bat mugakide dugunez, baita talde frantsesekin ere. Hori beharrezkoa ez ezik, erabat ezinbestekoa ere bada. Eta Foru Komunitatean dagoeneko hori egiten ari gara modu proaktiboan, esate baterako, ALERT edo HELINET mugaz haraindiko lankidetzako proiektuen bidez.

Gogoratu behar da hala Estatu baliabideak nola beste autonomia-erkidego batzuenak –eta, hala badagokio, nazioartekoak– osagarriak direla; agerian geratu da langileria eta baliabide arloetan elkarlan solidarioan aritzea dela erantzun-ildorik egoki eta eraginkorrena, eta horren aldeko apustua

egiten jarraituko dugu, hala jasotzen baita pasa den abuztuan Gobernu zentralak onetsitako Baso-suteei aurre egiteko presako neurriei buruzko Errege Dekretuan, autonomia-erkidego guztien artean, Nafarroa barne, egindako lan partekatuaren fruituan.

Nafarroako Foru Komunitateak, Estatuko gainerako tokiek bezala, une oso konplexuak bizi izan ditu, tamaina itzeleko (historikoak) hainbat suteri aurre egin behar izan baitie aldi berean.

Hortaz, suak itzaltzeko baliabideen beharra ere historikoa izan da eskualdean, nazioan eta Europan; eta tartean egondako erakunde, instituzio, toki-entitate eta operatibo guztiek lankidetzaren eta koordinazio-ahalegin ikaragarria egin behar izan dugu.

Nafarroako Gobernua lanean ari da erantzuteko, prebenitzeko eta aurreikuspenak egiteko gaitasuna indartze aldera. Barne Zuzendaritza Nagusiaren esparruan, lan-agenda handia diseinatu da, zeinak, uda honetan bizitakoa aztertuz eta partekatuz, ahalbidetuko digun hobekuntza posible guztiak aplikatzea baso-suteen larrialdien kudeaketan; izan ere, zurrenik gero eta maizago aurre egin beharko diegu.

Lan-agenda horri hasiera emateko, irailaren 29an Nafarroako Jauregian bildu ziren Barne Ministerioko babes zibileko eta larrialdietako zuzendaria eta hainbat autonomia-erkidegotako babes zibileko zuzendaritzak. Pasa den ostiralean "Análisis y reflexión de las experiencias en incendios forestales en Navarra, y de las actuaciones para su prevención" jardunaldia egin genuen Iruñeko Tres Reyes hotelean, eta bertan aritu ziren parte-hartzen larrialdien kudeaketako adituak, ingurumenekoak, AEMETeko kideak, katedratikoak eta larrialdi-komunikazioan adituak. Hitzaldietan honako gai hauek jorratu ziren: lurraldearen erabilera sute-arriskuei dagokionez; klima-aldaketa eta haren eragina sute-arriskuan; larrialdiaren gobernantza baso-sute bat dagoenean eta prebentzioa Ingurumen Departamentutik eta krisi eta larrialdietako komunikazioa. Era berean, mahai-inguru bat egin zen Nafarroako alkateekin, udan bizitako esperientzia oinarri hartuta azterketa eta hausnarketa bat egite aldera.

Jardunaldiak ikuspuntu integral batetik hausnartzeko aukera eman digu, modu integral eta zeharkakoan, eta tokiko, eskualdeko eta estatuko administrazioen parte-hartze eta lankidetzarekin.

Gainera, urriaren 21ean, ostiralarekin, jardunaldi bat deitu dugu larrialdietako operatiboa osatzen dutenen proposamenak entzuteko eta aztertzeke. Jardunaldi horretan ikuspegiak, proposamenak eta iritziak trukatu eta ekintza zehatzak aztertzeke aukera izanen dugu.

Jada azarorako aurreikusita dugu INFONA PLANaren (Nafarroako Baso Suteen Plana) homologazioa; hura aldatzeko lanetan gabilta, eta ondoren, udalei aurkeztuko diegu Leireko monasterioan eginen dugun berariazko topaketa batean.

Kudeaketa-estrategian funtsezko aldaketa bat ekarriko du berekin, estrategia erreaktibo bat izatek proaktiboa eta aurrea hartzeko izatera pasako baita. Jada zaharkitutako datu historikoak erabiltzetik, inguru aldakor bateko datu eguneratuak erabiltzera, batez ere klima-aldaketaren eta lurralde-aldaketaren ikuspuntutik. Metodologia sendo bat lantzen ari gara, ikuspegi konplexu batekin, sistemikoa eta neurrizkoa.

INFONA Plan berriari dagokionez, basoetako arriskuaren mapak lortuko dira, eta arriskuak identifikatuko, oinarri hartuta arrisku- eta zaurgarritasun-aldagaiak, neguaren eta udaren arteko bereizketa eginez. Kasuistika bereizgarri horretan, Nafarroa modu aitzindarian lanean ari da.

INFONA Plan berriaren aurkezpenarekin batera, arriskuaren mapa dinamikoak aurkeztuko dira, mailak, urtarokotasuna eta eremuak zehaztuta, baita tokiko planak egiteko derrigortasuna eta gomendioa ere.

Aldi berean, Hezkuntza Departamentuarekin batera lanean ari gara 5.000 biztanletik beherako udalerriei autobabeserako prestakuntza eskaintzeko, aurtan eta 2023an zehar.

Gainera, beharrezkoa ikusten dugu autobabes-protokoloak indartzearen aldeko apustua egitea, eta laguntza- eta aholkularitza-ildo bat onetsi nahi dugu baso-suteetatik autobabesteko berariazko udal jarduketa-planak abian jartzeko, uholde-planetan jada landu eta hain emaitza onak ematen ari direnen ildotik.

Udalerrindako planak, zeinak, hain zuzen, simulakroen bidez ezarri eta landu nahi ditugun 2023ko apirilean eta maiatzean.

Horrez gain, legegintzaldiaren hasieratik apustu argia eta irmoa egiten ari gara suhiltzaileen eta larrialdi-zerbitzuen plantillak handitzeko, eta horretan buru-belarri gabilta, ahalegin handia egiten ari baikara.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-22/PES-00210. Galdera, larrialdiei begirako suhiltzaileen efektibo operatiboei eta errefortzuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, larrialdiei begirako suhiltzaileen efektibo operatiboei eta errefortzuei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari José Javier Esparza jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00210), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1. Suhiltzaileen 471 kideetatik, zenbat dira benetan operatibo?

Nafarroako Suhiltzaileen zerbitzuaren plantillak egun 474 langile ditu. Horietatik 402 suhiltzaile, suhiltzaile-kabo, suhiltzaile-sarjentu, suhiltzaile-ofizialorde eta suhiltzaile-ofizial lanpostuak dira.

Horiez gain, 31 funtzionario daude, suhiltzaile edo suhiltzaile-kabo lanetan, baina bigarren jarduerako egoeran, larrialdietan laguntzeko funtzio teknikoak betetzen honako fase hauetan:

- Intzidentea gertatu aurretik: prebentzio- eta hedapen-lanak egiten.
- Intzidentean zehar: logistika-lanak egiten.
- Intzidentea gertatu ondoren: normaltasunera itzultzeko lanak egiten.

Horrez gain, gehitu behar dira udan hainbat suhiltzaile-etxetan praktikak egiten aritu eta egun prestakuntza-ikastaroa egiten ari diren 37 suhiltzaile, baita atalburuak eta bestelako administrazio-lanpostuak ere.

Gainera, gehitu behar dira sasoiko lanak egiteko kontratatutako 150 lagun, suhiltzaile-laguntzaile gidari eta suhiltzaile-laguntzaile peoi lanpostuetan aritzeko udako kanpainan.

2. Larrialdi-maila baten alerta ematen denean, suhiltzaileen kidegoaren indartze bereziren bat al dago? Nork aktibatu behar du? Abiarazi al zen ekainaren 15etik 29ra bitartean? Zer datatan?

Nafarroako Suhiltzaileen zerbitzuak tamaina egokia du urteko garai desberdinetan gertatu ohi diren ohiko larrialdiei erantzuteko, eta lan-karga ohikoa baino askoz handiagoa izan daitekeela ikusiz gero, edo txandako ohiko dispositiboak ezin diola aurre egin larrialdi-mota bati, kontratazioak egiten ditugu.

Hartara, udan honako parke hauek indartzen ditugu: Cordovilla, Miluzeko basea, Lizarra, Tafalla, Tuter, Zangoza, Azkoien eta Lodosa. Horretarako, suhiltzaile-laguntzaile gidariak eta suhiltzaile-laguntzaile peoiak kontratatzen ditugu, guztira 150 lagun, gerta daitezkeen baso-suteetan edo bestelako larrialdietan –horietarako prestakuntza jaso baitute– parte har dezaten. Era mailakatuan hasi ziren lanean, ekainaren 1ean, ekainaren 6an eta 15ean, eta amaitu zuten irailaren 20an, irailaren 27an eta urriaren 4an, hurrenez hurren.

Era berean, neguan jendea kontratatzen da Cordovilla, Oronoz eta Aurizko parkeetan, guztira 50, Nafarroako iparraldean egiten diren erretze preskribatuetan eta urteko garai horretan izan ohi diren suteen itzaltzean parte hartzeko.

3. Ba al dago inolako biderik langileria horri alerta helarazteko, zerbitzuz kanpo dagoenean? Nork eman behar du alerta?

Baso-suteei aurre egiteko langileak biltzen dira “Nafarroan 2022ko udako baso-suteak prebenitu eta itzaltzeko kanpainarako antolaketa eta jarraibideak” agirian ezarritakoarekin bat, eta agiri hori PEI-00367 galderari erantzuteko igorri genizun.

Zehazki, aipatu agiriaren 6. apartatuak hauxe dio:

“6. Langileak biltzea baso-suteei aurre egiteko

6.1. Agintariak biltzea

Esku-hartzeak iraupen luzea izanen duela aurreikusten den kasuetan, eta aldi berean esku-hartze bat baino gehiago egonez gero, agintariak bilduko dira esku-hartzeen koordinazioa eta protokoloek hala ezartzen duten esku-hartzeetan agintariak bertan egon daitezkeen bermatzeko. Horretarako, telefono guztietara mezu bat bidaliko da egoeraren berri emateko eta zenbat agintari bildu behar diren azaltzeko.

Aginte Postu Aurreratua mobilizatzen den baso-suteetan, Suhiltzaileen Zerbitzuko zuzenda-

riak edo Guardiako Arduradunak eskatuta, automatikoki, agintarien bilketa abiatuko da, sms bidez, honako bi kasuetan:

- Sutean lanean ari badira J3, J21 eta J22 (ez dago Guardiako J23).

J3 Guardiako Arduradun bat bilduko da, eta hura SOS Nafarroara joan eta Zerbitzuaren Guardia Nagusiaren ardura hartuko du, baita hiru sarjenturena ere; horietako bi Aginte Postu Aurreratura joanen dira, eta hirugarrena, Parke Nagusira.

- Sutean lanean ari badira J3, J22 (edo J21) eta J23.

J3 Guardiako Arduradun bat bilduko da, eta SOS Nafarroara joan eta Zerbitzuaren Guardia Nagusiaren ardura hartuko du, baita bi sarjenturena ere; horiek Aginte Postu Aurreratura joanen dira.

6.2. Kabo, suhiltzaile eta kontratatutako langileak biltzea.

Parke batetik edo batzuetatik langileak biltzea beharrezkoa denean, J3 edo horrek izendatutakoak kudeatuko du mezu bat bidaltzea kasuan kasuko parkeetara, eta bildu beharreko suhiltzaileen, kaboen eta behin-behineko langileen kopurua zehaztuko du; halaber, sms-aren testuan interesdunendako erreferentziatzko telefono-zenbaki bat jarriko da, eta biltzea egingen da baiezkota erantzun dutenen ordena-hurrenkerari zorrotz jarraituta”.

Aurrekoari lotuta, Suhiltzaileen Guardiako arduradunak egiten ditu deiak, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko zuzendariaren oniritziarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-22/PES-00213. Galdera, G30005 G3500 6013 467903 REACT. NASERTICi eginiko enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO FEDER 14-20 partidari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, G30005 G3500 6013 467903 REACT. NASERTICi eginiko enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO FEDER 14-20 partidari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko kide Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, G30005 G3500 6013 467903 REACT. NASERTICi eginiko enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO FEDER

14-20 partidari buruzkoa. Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideekin finantzaturako "GIGABITaren gizarteruntz. HW/SW azpiegitura" proiektuaren barruan aurreikusitako jarduketa-ildoetako batek eskatzen du komunikazioen elektronikako ekipamenduak erostea.

Eraginkortasun- eta ekonomia-arrazoiengatik, komenigarriagoa da erosketa hori Nafarroako Gobernuak zuzenean egitea; hortaz, funts mugimendu bat egin da "G300005 G3500 6059 491104 REACT CPDko elektronika. Banda zabal leko plana" partidara.

Jarduketa horrek ez dakar aldaketarik proiektuaren guztizko aurrekontuan; honako hau da urteko banaketa partiden artean:

Kontzeptua	Partida	2022
REACT NASERTICi egindako enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO-FEDER 14-20	G300005 G3500 6013 467903	1.900.000 €
REACT CPDko elektronika. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO-FEDER 14-20	G300005 G3500 6059 491104	1.000.000 €
GUZTIRA		2.900.000

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedaturikoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00214. Galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako aldaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako aldaketei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00214), zeinaren bidez "helikoptero medikalizatuari buruzko informazioa" eskatzen baitu. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Osasun Departamentuak ez du antolaketa-aldaketarik egin helikoptero medikalizatua mobilizatzeari dagokionez; baliabide hori batez beste egunean 0,6 aldiz ateratzen da, eta SOS Nafarroak mobilizatzen du landa-eremuko eta Nafarroako errepede sareko urgentzia larriei erantzuteko.

Alternatiba batzuk aztertzea planteatzen da, ahalbidetzeko anbulantzia medikalizatueto mediku eta erizain bana egotea Miluzeko basean, irteera-denboraren optimizazioa maximizatze aldera, baina gaur egun ez dago kronogramarik aurreikusita alternatiba horretarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko irailaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

34/22 Ebazpena, 2022ko urriaren 26koa, Nafarroako Arartekoak emana, urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdirako oinarriak onesten dituen, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko.

Nafarroako Arartekoa erakunde publikoa da, eta arduratzen da herritarren eskubide eta askatasun publikoak babesteaz eta hobetzeaz, eta Nafarroako Administrazio Publikoen jarduera gainbegiratzeaz. Erakundearen iritziz interesgarria da Zuzenbideko unibertsitate-titulua duten pertsonen prestakuntza sustatzea, zuzenean ezagut dezaten –praktikaz, batez ere–, zer jarduera egiten diren erakundeetan. Tutore baten zaintzapean eta haren irizpideei jarraituta, herritarrekiko harremanarekin lotutako eginkizunak beteko dituzte; hark emanen dizkie orientazioa, laguntza eta prestakuntza, eta zuzenduko ditu erakundeetan dauden bitartean.

Horretarako, bidezkotzat jo da Zuzenbideko gradua duten pertsonentzako prestakuntza-beka baten deialdiko oinarriak onestea, Nafarroako Arartekoan aritzeko. Deialdiak bete egiten ditu bai oinarri arautzaile hauek bai Nafarroako Arartekoaren araudiak agintzen duena ere.

Horren ondorioz, 2005eko azaroaren 21ean Nafarroako Legebiltzarreko Mahaiak onartutako Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketa- eta Funtzionamenduaren Araudiak ematen dizkidan eskumenak erabilita, honako hau,

EBAZTEN DUT:

1.º Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdia onestea, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko. Eranskinean agertzen diren oinarriek arautzen dute deialdi hau.

2.º Deialdia argitaratzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta instituzioko gune digitalean (www.defensornavarra.es).

Iruñean, 2022ko urriaren 26an.

El Defensor del Pueblo de Navarra-Nafarroako Arartekoa: Patxi Vera Donazar

ERANSKINA

Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdia, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko. Oinarriak

1. oinarria. Xedea.

1.1. Deialdiaren xedea da, Zuzenbideko gradua duten pertsonentzako beka bat ematea, lehiaketa bidez, Nafarroako Arartekoan aritzeko.

1.2. Deialdiaren helburua da Zuzenbideko gradua dutenentzat prestakuntza bultzatzea, instituzioan herritarren eskubideak babesteko eta hobetzeko egiten diren jarduerak zuzenean ezagutu ditzaten.

2. oinarria. Iraupena.

2.1. Bekak hamabi hilabete iraungo du, eta 2022ko abenduan hastea aurreikusten da.

2.2. Data hori aldatu ahal izango da, gerta daitezkeen inguruabarren arabera.

2.3. Beka ezin da luzatu.

3. oinarria. Bekaren zenbatekoa eta ordainketa.

3.1. Bekak 1.050 euroko zenbateko gordina izango du hilean, edo dagokion zati proportzionala, hala behar bada. Bekadunari dagokion Gizarte Segurantzaren kuota deskontatuko zaio. Diru-kopuru horri pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari dagokion atxikipena egingo zaio, indarra duten arauak jarraituz hala egin behar baldin bada.

3.2. Bekaren onuradunaren araubidea besteren konturako langileenaren parekoa izango da Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sarztearen ondorioetarako, urriaren 24ko 1493/2011

Errege Dekretuan ezarri bezala; dekretu horrek prestakuntza-programetan parte hartzen dutenak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean nola eta zein baldintzatan sartzen diren arautzen du, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatuz.

3.3. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzeko, bertan kidezeko eta/edo alta hartzeko, eta araubide horretatik ateratzeko ere, kontuan hartuko da pertsona onuraduna noiz hasten den prestakuntza-programan eta noiz uzten duen, enpresak Gizarte Segurantzaren inskribatzeko eta langileak kidezeko, alta eta bajak hartzeko eta haien datuak aldatzeko Erregelamendu Orokorrean ezarritako modu, epe eta ondorioekin. Urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

3.4. Onuradunari ematen zaion dirua ez da inolaz ere soldata edo lansaritzat hartuko, laguntza ekonomiko publikotzat baizik.

4. oinarria. Bateriaezintasunak.

Prestakuntza-beka bateraezina izango da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioak emandako bekekin, bai eta beste administrazio, instituzio edo entitate publiko zein pribatu batzuek edo partikularrek emandako bekekin ere, instituzioak aurkakoa adierazi ezean.

5. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

5.1. Dokumentazioa aurkezteko epea bukatzen den egunean baldintza guzti hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak soilik izan daitezke onuradunak:

a) Adinez nagusia izatea.

b) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen duen estaturen batekoa izatea. Nolanahi ere, Espainiako nazionalitatea ez duenak gaztelaniaz behar adina badakiela frogatu beharko du.

c) Zuzenbideko graduaren unibertsitate-titulu ofiziala izatea, Espainiako agintariak emana edo homologatua, eta deialdi hau argitaratu baino lehenagoko hiru urtean lortu izana. Zuzenbideko graduaren baliokidea izango da Zuzenbideko eta beste zientzietako gradu bikoitza.

d) Bizitokia Nafarroan izatea, deialdia argitaratu baino urte bat lehenagotik gutxienez.

e) Jarduteko gaitasun osoa izatea, eta ez izatea bekaren xede den prestakuntza-jardueran aritzea galaraz diezaiokeen desgaitasun fisikorik edo gaixotasunik.

f) Zerga guztien ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzea, eta ez kobratzea administrazio edo entitate publiko edo pribatu batetik helburu bera duen beste edozein laguntza publiko bateraezinek.

5.2. Baldintza horiek guztiak bekaldi osoan bete beharko dira.

6. oinarria. Baloratzeko baremoa.

Baremo honi jarraituz baloratuko dira eskabi-deak:

a) Ikasketa-espeditentea: Gehienez ere 10 puntu.

Espeditentearen batez besteko nota baloratuko da dagokion Unibertsitateak emandako puntuazioaren arabera.

Ez dira baloratuko 6 puntutik beherako batez bestekoa duten espeditenteak (10 puntuko eskalan).

b) Bestelako unibertsitate-titulu ofizialak:

Zuzenbideko gradua ez den bestelako unibertsitate-titulu ofizialik izanez gero, Espainiako agintariak emana edo homologatua, puntu bat emango da titulu bakoitzeko.

Unibertsitateko gradu titulua ez den bestelako titulua, dela masterra, dela doktoretza edo besteren bat 0,5 puntu titulu bakoitzeko.

c) Zuzenbide publikoari lotutako ikasgai edo arlo hauetan lortutako kalifikazioek: gehienez ere 10 puntu.

– Konstituzio-zuzenbidea.

– Zuzenbidearen iturriak.

– Oinarrizko eskubideak.

– Estatuaren antolaketa.

– Administrazio-zuzenbidea, zati orokorra.

– Administrazio-zuzenbidea, zati berezia.

– Nafarroako zuzenbide publikoa.

d) Hizkuntzen ezagutza.

Ikastetxe publikoek emandako ziurtagiriak edo titulu ofizialak soilik baloratuko dira.

Hizkuntza eskola ofizial batek emandako gaitasun-agiria edo titulua edo ofizialki baliokidea den

titulua edukiz gero, gehienez ere 1 puntu hizkuntza bakoitzarengatik; baremo honen arabera:

HEOko maila	Ziurtagiria	Puntuak
1. eta 2. maila	A1 eta A2	0
3. maila	B1	0,40
4. maila	B2	0,70
5. maila	C1	1,00

Hizkuntza eskola ofizialetatik kanpoko ikastetxeetan egindako ikasketen kasuan, berriaz aipatu beharko da egindako ikasketak zein ziurtagiriaren baliokideak diren, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren gomendioei jarraikiz.

e) Elkarrizketa pertsonala: gehienez ere 10 puntu.

Puntu gehien lortu dituzten bost pertsoneri egingo zaie elkarrizketa. Ebaluazio Batzordeko kide batek egingo ditu elkarrizketak.

Baloraziorako honako hauek hartuko dira kontuan: motibazioa; ekimena; erantzunen argitasuna eta ordena; gaiak beren artean lotzeko gaitasuna; jendea hartzen jarduteko, talde-lanerako eta gizarte-harremanetarako gaitasunak; eta beste gaitasun sozial edo intelektual batzuk.

Beka eskatzaileei posta elektronikoz egingo zaie dei, gutxienez ere 48 ordu lehenago. Elkarrizketa egitea nahitaezkoa da, eta hautapen prozesutik baztertu egingo da agertzen ez dena; hala-koetan, puntuazio handiena duen hurrengoari deituko zaio.

7. oinarria. Eskaerak.

7.1. Interesdunek dagokion eskabidea toki hauetako batean aurkeztu beharko dute:

a) Nafarroako Arartekoko Erregistroan. Emilio Arrieta kalea 12, behea, 31002, Iruñea.

b) Posta elektronikoz, dokumentu guztiak info@defensornavarra.es helbidera bidalita, 7.3 puntuaz ezingo dena kontuan hartuz.

c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokiren batean.

7.2. Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeitun egun naturaleko epean aurkeztu beharko da eskabidea.

7.3. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskabidea, eranskineko ereduaren arabera betea.

b) Eskatzailearen curriculum vitae-a, lortutako merezimendu guztiak zehatz-mehatz jasota.

c) Ikasketa espedientearen ziurtagiria, maila bakoitzeko gai guztien kalifikazioekin, batez besteko nota barne, zein deialditan gainditu zituen espresuki aipatzen duena.

d) Alegatzen dituen merezimenduak frogatzeko agiriak.

e) Hizkuntzak meritu gisa baloratzeko: hizkuntza ezagutzaren dutela bermatzen duten ziurtagiriak edo titulu-egiaztagiria.

7.4. Epean aurkeztutako eskaerak aurreko zenbakian finkatutako dokumentuak ez baditu, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean zuzendu dezala, eta adieraziko zaio, zuzendu ezean, eskaerari uko egiten diola ondorioztatuko dela eta espediente artxibatuko dela, eta azken gorabehera hori jakinaraziko zaiola.

Deialdian ezarritako merezimenduei buruzko agiriak aurkezten ez badira, ezingo da zuzenketa egin.

7.5. Eskatzaileek beren helbide elektronikoa emango dute, behar diren jakinarazpenak jasotzeko.

7.6. Prestakuntza-beka jasotzeko eskaera aurkezteak berarekin dakar eskatzaileak deialdiaren oinarriak onartzea.

8. oinarria. Ebaluazio Batzordea.

8.1. Ebaluazio Batzordea arduratuko da betebeharrak egiaztatzeaz eta bekak eskatzen dituztenek alegatutako merezimenduak ebaluatzeaz.

8.2. Ebaluazio Batzordeak aurkezten diren eskaerak aztertu eta baloratuko ditu, eta izangaien zerrenda bat egingo du, lortutako puntuazioaren arabera.

8.3. Ebaluazio Batzordea hauek osatuko dute:

– Instituzioko idazkari nagusiak.

– Nafarroako Ararteko aholkulari batek (idazkari-lanak egiten dituena).

– Instituzioko kudeaketa-teknikariak.

Aipatutako pertsonetako bat ez badago, Nafarroako Arartekoak erakundeko aholkulari bat izenda dezake.

9. oinarria. Hautaketaren ondorengo prozedura.

9.1. Ebaluazio Batzordeak bekarako hautatu duen pertsonak dokumentazio hau aurkeztu beharko du, hautaketa jakinarazi eta bost egun naturaleko epean:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo baliokidea den identifikazio agiriaren fotokopia.

b) Zuzenbideko graduaren tituluaren fotokopia.

c) Nafarroako herriren bateko erroldatze ziurtagiri eguneratua, antzinatasuna zehazten duena.

d) Jarduteko gaitasun osoa duela, eta bekaren xede den prestakuntza-jardueran aritzea galaraz diezaiokeen desgaitasun fisikorik edo gaixotasunik ez duela adierazten duen dokumentu bat. Eredu bat emango da baldintza hori egiaztatzeko.

e) Zerga guztien ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzea, eta ez kobratzea administrazio edo entitate publiko edo pribatu batetik helburu bera duen beste edozein laguntza publiko bateraezinek. Eredu bat emango da baldintza hori egiaztatzeko.

9.2. Beka Nafarroako Arartekoaren ebazpen baten bidez emango da, eta ebazpen hori instituzioaren gunen digitaletan argitaratuko da: www.defensornavarra.es.

Hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenei idatziz emango zaie emaitzaren berri, eta lortu duten guztizko puntuazioa adieraziko zaie; nolahi ere, espedienteko informazioa kontsultatzeko eskubidea izango dute.

9.3. Eskatutako dokumentazioa ez bada aurkezten, edota aurkezten dena ez da eskatutakoa, interesdunak uko egin duela ulertuko da, eta zentzu horretan komunikatuko zaio.

9.4. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, ukatu egin direla ulertuko da.

10. oinarria. Deialdia hutsik geratzen bada.

Hautatze prozesu honen arabera deialdia hutsik geratzen bada, Nafarroako Arartekoko instituzioak aurreko deialdira aurkeztu ziren pertsonen dei dezake, betiere deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte eta jasotako puntuazioa kontuan hartuta, edonola ere eta hautaketa egokia lortzeko beharrezko neurriak hartu ahal ditu.

11. oinarria. Tutoretza.

11.1. Beken onuradunaren jarduerak aholkulari batek gainbegiratuko ditu eta aholkulari horren tutoretzapean egongo da onuraduna.

11.2. Tutoreak orientazioa, laguntza, prestakuntza hobea eta gidaritza emango dizkio bekadunari erakundearen dagoen bitartean. Prestakuntza bideratu eta gainbegiratzear arduratuko da, orientabideak, gomendioak, iradokizunak eta, hala badagokio, zuzenketa oinarrituak ezarriz, bekadunak prestakuntza hobea izan dadin. Bekadunen betebeharrak orokorrak eta espezifikokoak betetzen direla gainbegiratuko du.

11.3. Tutoreak prestakuntza-plan orientagarri bat emango dio bekaren onuradunari, bertan nahitaezkoztat jotzen diren ebaluazioak alde batera utzi gabe.

12. oinarria. Onuradunaren betebeharrak.

Betebeharrak hauek ditu bekaren onuradunak:

a) Bekaren xedeko prestakuntza-jarduerak betezea.

b) Betebeharrak eta baldintzak betetzen dituela frogatzea, bai eta, orobat, beka jasotzeko arrazoi izan diren jarduerak egin dituela eta helburuak bete direla ere.

c) Emandako bekaren gainean egin ditzaketen egiaztapen-lan guztietan parte hartzea.

d) Xede berarekin eskatu edo jaso dituen beselako beka edo diru-laguntzen berri ematea Nafarroako Arartekoari.

e) Nafarroako Arartekoari komunikatzea emandako bekari espresuki uko egiten diola, jarduerak utzi baino hamar egun natural lehenago gutxienez.

f) Bekaren zuzeneko ondorio diren jarduerak eta argitalpen guztietan bekadun gisa aritu dela adieraztea.

g) Bekaldiak irauten duen bitartean eta ondoren, ezagutzen duen isilpeko informazio tekniko edo administratiboaren gainean sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzea.

h) Zein erakundetan jarduten duen, bertako barne edo funtzionamendu araubidea betetzea.

i) Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen betebeharrak egunean dituela egiaztatzea. Eman den eremuan, Nafarroako Arartekoari baimena ematea egongo da, onuradunak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dituen datuak kontsultatzeko, jarduerak hasten diren unean.

j) Nafarroako Arartekoaren datu pertsonalak babesteko legezko erregimena onartzea.

13. oinarria. Prestakuntza-jardueraren hasiera eta uko egitea.

13.1. Onuradunak adierazten den egunean hasi beharko du lanean instituzioan. Adierazitako egunean onuraduna ez bada jardunean hasten, Nafarroako Arartekoari horren berri eman gabe, edo onuradunak lanean ez hasteko arrazoiak adierazi eta instituzioak ez badu ikusten ezinbesteko arrazoiak direla edo ez dagoela behar bezala justifikatuta, bekari behin betiko uko egiten diola ulertuko da.

13.2. Bekari uko eginez gero, Nafarroako Arartekoari horren berri eman beharko zaio. Beka erabiltzen hasi ondoren, bekari uko eginez gero, Nafarroako Arartekoari berariazko ukoaren berri eman beharko zaio, jarduera utzi baino hamar egun natural lehenago gutxienez.

13.3. Eskuratutako bekari edozein arrazoiengatik uko eginez gero, posible izango da zerrendan hurrengo dagoenari ematea, deusetan galarazi gabe onuradunak uko egin arte dituen betebeharrak eta 10. oinarrian ezarritakoa kontuan hartuz.

14. oinarria. Prestakuntza-bekaren gauzatzea.

Prestakuntza-beka gauzatzeko, onuraduna Nafarroako Arartekoaren egoitzan egon beharko da astean 30 orduz. Era berean, prestakuntza-premiekin eskatzen dituzten joan-etorriak egingo dituzte.

Bekadunak 27 egun balioudun izango ditu atseden hartzeko.

15. oinarria. Jabetza intelektuala.

Bekarako hautatu den pertsonak jabetza intelektualaren gainean dituen eskubideak, Nafarroako Ararteko bekaldian egindako jardueraren ondorioz eskuratzen direnak, eskubide horiek erregulatzen dituzten Estatuko arauetan ezarritakoari jarraikiz arautuko dira. Horri dagokionez, instituzioak ez dio uko egiten agirien, azterlanen, ikerlanen, lanen, eskubideen, emaitza zientifikoen eta izan litezkeen asmakuntzen gainean legokiokeen jabetzari.

16. oinarria. Lan- edo administrazio-harremanik eza.

16.1. Beka erabiltzea eta bekaduna izatea ez da zerbitzuak ematea, eta egoera horrek ez dakar berarekin lan-harremanik, lan administratiborik edo lan estatutupekorik sortzea Nafarroako Arartekoaren instituzioarekin, ez eta antzeko eskubi-

derik lortzea ere. Instituzioak ez du konpromisorik hartuko beka bukatutakoan bekadunak bere plantillan sartzeko.

16.2. Prestakuntza bekadunei agintzen zaizkien lan edo jarduerak Nafarroako Ararteko langileek gainbegiratuko dituzte eta langile horiek izango dira lan horien erantzuleak. Bekadunek ezingo dituzte Nafarroako Ararteko langileen eginkizunak bete edo beraientzat hartu, ez eta hirugarrenen aurrean instituzioko kide, ordezkari edo agente gisa agertu ere.

17. oinarria. Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.

Bekadunak, prestakuntza egiten ari deneko Nafarroako Arartekorekin duen harreman juridikoa ezertan aldatu gabe, eskubidea izango du zerbitzuagatik eta bidaiengatik izango duen gastuengatik langileei dagozkien ordain berberak jasotzeko.

18. oinarria. Bekaren ordainketa itzultzea edo bertan behera uztea.

18.1. Nafarroako Arartekoak eskubidea izango du onuradunari eskatzeko jaso duen zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko, edo zenbateko horiek bertan behera uzteko, kasu hauetan:

a) Beka eskatzeko eta lortzeko baldintzak faltsutu baditu edo beka ez ematea ondorioztatuko luketen baldintzak ezkutatu baditu.

b) Bekadunak bere gain hartutako betebeharrak eta eginkizunak ez betetzea, jarduerak egiten ardurarik ez jartzea, errendimendu eta aprobe-txamendu eskasa izatea eta lanak kalitate gabe-koak izatea.

c) Prestakuntza-beka emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzea, aldezturik baimena lortu gabe. Horretaz gain, aldi berean jasotzea beka horrekin bateratu ezin den beste beka edo dirulaguntzaren bat edo bateragarria kontsideratzen ez den lan edo aktibitatearen bat eginez gero.

d) Instituzioak egindako bekaren inguruko egiaztatze-jardueretan parte ez hartzea.

18.2. Nafarroako Arartekoak erabakiko du, ebazpen baten bidez, beka itzuli behar den edo bertan behera geratuko den. Horretarako, aldezturik espediente bat egingo da, txostenekin, frogekin eta onuradunaren alegazioekin.

18.3. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, tokia, modua eta diru-sartzea egiteko edo beka eteteko epea adierazita.

19. oinarria. Prestakuntzaren egiaztatzea.

Prestakuntza-beka amaitzean, Nafarroako Arartekoak agiri publiko bat egingen du, onuradunak egindako prestakuntza egiaztatzeko. Beka osorik egin ez bada, onuradunak egindako jardueraren arabera baloratuko du erakundeak dokumentu hau eman izana.

20. oinarria. Aplikatu beharreko legeria.

Oinarri hauen interpretazioen eta aplikazioen ondorioz ager daitezkeen gorabehera guztiak Nafarroako Arartekoak ebatziko ditu, oinarrietan ezarritakoaren eta aplikatu behar den araudiaren arabera.

21. oinarria. Errekurtsoak.

Errekurtso hauek jar daitezke deialdiko oinarrien eta oinarriak betetzeko ekintzen aurka:

a) Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzeko aukera izango dute Nafarroako Arartekoaren aurrean, ebazpena jakinarazi eta, hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, ebazpena jakinarazten den ondorengo egunetik hasita eta bi hilabeteko epean, oinarri hartuta uztailaren 13ko 29/1998 Legea (administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena).

**ZUZENBIDEAN GRADUATUTAKO PERTSONENTZAT NAFARROAKO ARARTEKOAN ARITZEKO
PRESTAKUNTZA BEKA BAT ESKATZEKO ESKAERA ORRIA**

_____ jaun/andreak, _____ NAN zenbakia duenak,
_____ helbidean bizi denak (zehaztu kalea, plaza,
posta-kodea eta herria), eta prozedura honi dagozkion jakinarazpenetarako _____ telefonoa eta
_____ posta elektronikoa dituenak,

ESKATZEN DU: Duela gutxi deitutako Nafarroako Arartekoaren erakundean aritzeko Zuzenbidean graduatutako pertsonentzako prestakuntza-beka bat lortzeko prozeduran parte hartzea.

ADIERAZTEN DU: Deialdiko 5. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela (adin nagusikoa izatea, nazionalitatea, Zuzenbideko gradu-titulua, Nafarroan bizitzea, zereginak betetzeko gaitasuna, eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea).

HORRETARAKO, deialdiko 7.3 oinarria betez, hark eskatutako dokumentu hauek aurkezten ditu: a) eskaera-orria, beteta eta sinatuta, b) curriculum vitae-a eta lortutako merezimenduen zerrenda, c) espediente akademikoaren egiaztagiria, d) aipatutako merezimenduak egiaztatzeke dokumentuak eta e) beharrezkoa izanez gero, hizkuntzen egiaztapen-tituluak.

JAKINARAZTEN DU: Onartzen dituela deialdiko oinarriak eta prestakuntza-beka honen kudeaketari lotuta bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen duela.

_____ (e)an, _____ ko _____ (a)ren _____ (e)an.

Eskatzailearen sinadura

Deialdia bizkortzeko, arren, dokumentuak posta elektronikoko bidez info@defensornavarra.es edo Emilio Arrieta 12, behea, Iruñea helbidean aurkezteko eskatzen da.

NAFARROAKO ARARTEKO JAUNA**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA**

Datu pertsonalen babesarekin lotutako alderdi guztietan, Nafarroako Arartekoak 2016ko apirilaren 27ko Europako Araudiarekin, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearekin eta bere jarduerari aplikagarri zaizkion gainerako legeekin bat etorri jarduten du.

1. Arduraduna: Nafarroako Arartekoa. **2. Xedea:** erakundearen jarduera administratiboa (langileak, kontratazioa, zergak...). **3. Legitimazioa:** Kontratu, estatutu edo lege bidezko harremana betetzea. **4. Hartzaileak:** administrazio eta erakunde publikoak eta banketxeak. **5. Eskubideak:** atzipena, zuzenketa, ezabapena, tratamenduaren mugaketa, aurkaratzea, eramangarritasuna eta onespenean atzera egitea, lege ezarritako baldintzetan. **6. Datuen jatorria:** administrazio eta erakunde eskudunak, eta interesdunak. **7. Informazio osagarria:** www.defensornavarra.es webgunean kontsultatu daiteke (datuen babesa).

Datuen babesari eta beren eskubideak erabiltzeari dagokionez, interesdunek hona jo dezakete: Nafarroako Arartekoa helbidea: Arrieta 12, etxabea, Iruñea (Posta-kodea: 31002), telefono zk.: 948 203571, helbide elektronikoa: info@defensornavarra.es.

Deialdia, hautaprobaren bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikarien bi zerrenda osatzekoa: bata, Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako; eta bestea, aldi baterako administrazio-kontrataziorako.

Gaiztatu duten izangaien behin betiko zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikarien bi zerrenda —bat Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako, eta bestea aldi baterako administrazio-kontrataziorako— hautaprobaren bidez osatzeko deialdiko Epaimahaiak deialdi horretara aurkeztu diren izangaiak lortutako emaitzen behin

betiko zerrenda eta Epaimahaiak eginiko bileren aktak aurkeztu ditu.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. artikuluan esleitutako eskumenak baliatuz, hona ERABAKIA:

1. Gaiztatu duten izangaien behin betiko zerrenda onestea, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikarien bi zerrenda osatzeko deialdiari dagokionez. Honako hau da:

	Izen-abizenak	Lehen ariketaren puntuazioa	Bigarren ariketaren puntuazioa	Puntuazioa, guztira
1	RAMÍREZ ERRO, JUAN ANDRÉS	26,40	48,30	74,70
2	FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, ADRIÁN	23,47	44,42	67,89
3	FERNÁNDEZ MARAÑÓN, CRISTINA	19,47	48,11	67,58
4	NUÑEZ IRIARTE, MIGUEL ÁNGEL	26,13	39,77	65,90
5	LARREA SALINAS, MARÍA ARANZAZU	22,93	40,87	63,80
6	LANZ GALARZA, MARÍA CARMEN	20,53	41,06	61,59
7	ELIZALDE INSAUSTI, MARÍA JOSE	22,67	37,04	59,71
8	RAMÍREZ IRURE, MARÍA SOLEDAD	18,67	40,65	59,32
9	SÁNCHEZ ARTEAGA, MARÍA NIEVES	16,00	40,59	56,59
10	BARCOS ARAMBURU, ANA	22,67	32,12	54,79
11	GARCÍA ONECA, VANESA	19,20	30,12	49,32
12	EGÜÉS CATALÁN, FRANCISCO JAVIER	14,93	31,44	46,37

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin, bai eta Parlamentuaren web orrian eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias